[a]aztiker
soziologia ikergunea

# GIPUZKOAKO HERRITARREN KULTURA POLITIKOA: HAUSNARKETA JARDUNALDIAK

## SAIOAREN MEMORIA DESKRIPTIBOA

Adituak, 2017ko martxoaren 13an

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

## BERTARATUTAKOAK:

- **Aldundiko Bizikidetza eta giza eskubideetarako Zuzendaria:** Maribel Vaquero
- **Adituen inkestaren partaide izan diren 25 pertsona:**
  - Emakumezkoak= 6, honako eremuetako adituak direnak : eremu soziokulturala, hezkuntza eremua, komunikazioa eta garapen ekonomikoa.
  - Gizonezkoak= 19, honako eremuetako adituak direnak: hezkuntza eremua, ezagutza sorrera, komunikazio eremua, eremu soziokulturala, garapen ekonomikoa.
- **Aztiker Ikerguneko teknikariak**: Asier Etxenike, Markel Ormazabal, Asier Azkarraga, Maitane Barrenetxea eta Susana Martinez.

## HELBURUAK

Jardunaldi honek ondorengo helburu nagusi hauei erantzun nahi izan die:

- *Gipuzkoako herritarren kultura politikoa, 2016*, eginiko Ikerketen emaitzen aurkezpena eta dokumentazio banaketa egitea.
- Adituen balorazio orokorrak jasotzea, ikerketak sortutako emaitzekiko.

Kultura politikoa hobetzeko erronkak kokatzea, horien leheneste lehen talde ariketa eginez.

# JARDUNALDIA GARATZEKO ERABILI DEN ESKEMAREN ARABERA, SORTUTAKO EDUKIA

## 0. ONGI ETORRIA

Bizikidetza zuzendariak agurra eta ongi etorria eman du, Jardunaldiaren helburuak kokatuz, eta Kultura Politikoari buruzko Ikerketa ildoa kokatuz. Horrela, Ikerketa ildoaren lehen lan fasea amaitu dela kokatu du, eta bertan, 93 adituek eta 47 batzarkideek izan direla bi inkesten partaide. Inkesta horien, Kultura Politikoa aztertzeko aldagai ezberdinen araberako edukiak ustiatu dira, eta eduki horiek herritarren iritziekin alderatu dira. Amaitzeko azpimarratu du ikerketa ildo honek helburu orokor bikoitza duela:

- Gipuzkoarron kultura politiko eta demokratikoaren uneko argazkia sortzea.
- Bizikidetzaren bidean, egoeren inguruko hausnarketa eta eztabaida konpartituak aktibatzea, eta horien ondorioak jasotzea.

Besterik gabe, arratsaldea eskaini izana eskertuz, aurkeztu ditu Aztiker Ikerguneko partaideak.

Aztiker Ikerguneko koordinatzailea den Susana Martinezek, jardunaldiaren eskema azaldu du:

1- Lehen fasearen emaitzen aurkezpena eta horien balorazioa.
2- Lan taldekako hausnarketak Kultura Politikoaren ezaugarri, elementu eta aldagai ezberdinen arabera.
3- Lan taldeetan sortutako ondorio nagusiak konpartitzea eta erronken leheneste ariketa egitea.

Amaitzeko gogorarazten du dokumentazioa sarrera mahaian dagoela. Horrekin batera adierazten du Jardunaldiaren amaiera 18,30etan izango dela.

## 1. IKERKETAREN EMAITZEN AURKEZPENA:

Kultura Politikoaren Ikerketa Ildoa zuzentzen ari den Asier Etxenikeren eskutik. Sarreran aipatzen da ondorio nagusiak aurkezten direla eta horregatik ez duela bat egiten orrialdetan banatu den txosten osoa eta aurkezten ari den dokumentua. (ikus 1. Eranskina: Kultura Politikoaren ondorioak, 2016. Ppt).

Puntu honetatik aurrera, **Jardunaldian zehar sortu diren gogoeta eta edukiak** jasotzen dira, era deskriptibo batean, eta **partaideek adierazi dituzten hizkuntzan eta moduan.**

### 1.1. BALORAZIO DINAMIKA 1. OSOKO BILKURAN:

- **Arreta gehien deitu dioten emaitzak-elementuak** kokatzea (norbanako ariketa irekia):

  Partaide bakoitzak bina postit dituelarik bertan arreta gehien deitu dioten emaitza/edukiak zehaztu ditu, modu irekian, galdera honi erantzuna emanez:

  *Zein da arreta gehien eman dizun ideia-elementua? Zerekin geratu zara? Zer azpimarratuko zenuke?*

Sortutako edukiak jaso dira kartulinan partaideek adierazi edota idatzi dituzten moduan, soilik sailkapen bat egin da, harremana zuten iritzi edota balorazioen artean, honela:

| *Zein da arreta gehien eman dizun ideia-elementua? Zerekin geratu zara? Zer azpimarratuko zenuke?* |
|---|
| • Mantenimiento o aumento de participación en actividades sociales<br>• Participar cuesta, por lo menos tiempo, y no todo el mundo tiene las mismas posibilidades ni interés.<br>• Nahiko argi gelditzen da gizarteak partehartze gehiago eskatu bai, baina erreferendum sinpleen bitartez dela, ez hainbeste lan gehiago (eta konpromiso gehiago) eskatzen duten formulen bitartez. (batzarkideen erantzunaren arabera 3.6.8)<br>• Partaidetza zabaldu egin behar da beste kolektibo batzuetara<br>• Helburua herritarren parte hartzea bada, beste nonbait lan egin beharko da<br>• Iristen al gara galdetzera parte hartze ez duten horiengana?<br>• Partehartzea oso handia da<br>• Partehartzeari beldurra/mesfidantza batzarkideen aldetik, hauteskundeen bidez soilik<br>• Herria guk geuk egiteko motibazioa<br>• Arrazoia boluntarioen partaidetza |
| • Resolver los conflictos por medio del consenso |
| • Etorkizuneko lehentasunezko zenbait gai identifikatzerako orduan desadostasuna<br>• Datu zehatz batek harritu nau: euskara/hezkuntza/kultura ildoetan panelisten eta batzarkideen arteko aldea.<br>• Hezkuntza-euskara: autogestio pertsonal eta soziala<br>• Gaien jerarkia: indibidualak, ekonomikoak, toleranteak |
| • Politikari buruzko bizipenak:  alde batetik biltzarkideak eta adituak eta bestetik herritarrak. Bi mundu oso ezberdinak?<br>• Kultura Politikoan:  alde batetik politikoak bestetik herritarrak…kezka.<br>• Panelistok "La2"eko programazioa bezain ideala den kultura politikoaren argazkia egin dugu. (Kualifikazio eta sozializazio politiko altuak …"extralurtar" egiten gaitu).<br>• Herritarrek ikuspegi ezberdina batzarkide eta adituekin konparatuta.<br>• Teniendo en cuenta que el panel de expertos ha sido más o menos acordado con el grupo de trabajo de los junteros (con el sesgo que eso puede suponer) me parecen especialmente relevantes las diferencias detectadas en algunas preguntas. Es decir, probablemente sean mucho mayores.<br>• Diferencia de apreciación entre junteros y expertos en cuanto al sentimiento de "buen ciudadano" Votar-junteros participar-expertos<br>• "Kasta" gara, bereizketa nabarmena dago batzarkide-aditu eta herritarren artean politikarekiko begiradan<br>• Ze distantzia handia dago herritar "arrunten" eta aditu-batzarkideen jarreren artean<br>• Sorpresa al estar más cercanas nuestras opiniones al mundo de la política profesional que de la ciudadanía<br>• Batzarkideak = adituak ≠ herritarrak<br>• Emaitzak oso antzekoak bi taldeen artean<br>• Adituek 5 arlotan |
| • Familiaren rola, kultura politikoaren transmisioan<br>• Faltan bota dut adinen edo belaunaldien arteko ezberdintasunetan sakontzea |
| • Gogoeta interesgarria eta zabaldu beharrekoa.<br>• Informazio asko momentuan geureganatzeko<br>• Helburua oso ona |
| • El grupo de expertos parece muy homogéneo y quizás alejado de la media de la población en sensibilidad política; formación-información; progresista; abertzale. ¿Puede introducir sesgo en el estudio?<br>• Soziometroak azaltzen dituen ezberdintasunak gai askotan: errepresentatibitatea |

| |
|---|
| • Nola gainditu ezberdintasunak teknologia berriek dakartzaten harreman aldaketarekin?<br>• Aurkeztutako formatu eta kanal guztiak kolaboratiboak dira, ez dira indibidualak, nahiz eta gaur egungo partehartzea gero eta indibidualagoa izan (sarea da etorkizuna)<br>• Nola eragin edo formazio indibidualean?<br>• Norberaren iritzi propioa sortzea<br>• Komunikabideen garrantzia politikaz herritarra duen iritzia baldintza dezake<br>• Sare sozialak eta politika<br>• Informazio iturriak aldatzen doaz |
| • Politikaren prestigio falta<br>• Nola prestigiatu politika?<br>• Politikaren interesaren jaitsiera belaunaldi berrietan edo gazteetan<br>• Konpromezuaren jaitsiera eta mesfidantzaren igoera politikarekiko: Hurbilekoekin gutxiago: udalak…<br>• Testuingurua guztiz diferentea izan arren, ez al da gertatzen ari politika=erlijioa – sekularizazioa eta alderdia=eliza – taldea? |
| • Herritarren kontzientzia falta beraien betebeharraz |

Ariketa amaitzeko, balorazioen lotura eta harremana kontuan izanik, honelako multzoak egin daitezkeela aipatu da:

- Partaidetzari buruzko balorazioak
- Azpimarratzea adituak/politikariak: iritzi antzekoagatik edota kontrakoagatik.
- Komunikabideak eta iritzi politikoak, kanal berriak, bide indibidualak/kolektiboak
- Generazioen arteko harremanei buruz
- Politikaren prestigio ezari buruz
- Ordezkaritza eta partaideen gehiegizko homogeneitateari buruz
- Ikerketaren garrantzia eta zabaldu beharra
- Herritarren kontzientzia kolektiboaren faltaz

**1.2. <u>KULUTRA POLITIKOA, DIAGNOSIAREN AZTERKETARAKO AMIA:</u>**

Partaideak hiru azpitaldeetan banatu dira, sarreran banatu zaien goxokiaren kolorearen arabera. Azpi talde bakoitzak ikerketatik ateratako kontzeptu multzo bat izan du aztergai. Lehenik pertsona bakoitzak hiruna kontzeptu hautatu ditu eta horietan sakondu du. Segidan edukiak konpartitu eta baloratu dira; azkenik, talde bakoitzak hautatu ditu hiruna erronka, kultura politikoan aurrera egiteko eta hobetzeko erronkak izango direnak. Identitatea eraikitzeko elementuei dagokionez, ez dira baloratu erronkak, baizik eta egun identitateen eraikuntzan gehien eragiten duten ezaugarriak.

Jarrian, lan talde bakoitzean sortu diren edukien eskema azaltzen da, eta bakoitzeko ondorio nagusiak eta erronkak ere zehazten dira.

## 1 LAN TALDEA: EGUNGO KULTURA POLITIKO OSATZEN DUTEN ELEMENTUAK

| KONTZEPTUAK | Dituen ezaugarri / elementu nagusiak | Egun kontzeptuak dituen indarguneak | Kontzeptuak dituen hutsuneak | Erronka |
|---|---|---|---|---|
| KONTSENTSOA | • Elkarrizketa<br>• Enpatia<br>• Elkar ulertzea | | • Adibide gutxi politikan, ez da balioan jartzen, ez da prestigiatzen, ez da errekonozitzen. | • Errespetua<br>• Elementu gehiago partekatzen ditugunak<br>• Ereduak bilatu, "prestigiatu", balioan jarri eta sozializatu<br>• Instituzioetatik haratago dauden ereduak eta adibideak ere balioan jarri |
| GATAZKA | • Bizikidetzaren aurka eta hobetzeko aukera<br>• Taldeak/pertsonak aurrera egiteko beharrezkoa eta ezinbestekoa | • Tentsioak kudeatzeko aukera | • Gatazkaren blokeora joateko kultura | • Gatazkak kudeatzeko kultura sustatu<br>• Zehaztu mekanismoak horretarako<br>• Gatazkaren adiera positiboa balioan jarri, prestigiatu.<br>• Gizarte bakoitzak zehaztu beharra gatazkaren zein intentsitatean duen oreka eta aurrera egiteko aukera. Gatazkaren intentsitateari errepasatu |
| LEGEA | • Segurtasuna, ordena, berdintasunaren izenean | Gizartean ordena eta bizi arauak ezartzen ditu | • Inmobilismoa legeen esparruan<br>• Mugatu egiten ditu aldaketa aukerak<br>• Izaera oso itxia, "enkortsetatua" | • Legea izaera eta ikuspegi dinamikoagoan garatu |
| TOLERANTZIA | • Desconocimiento con otras culturas<br>• Bestea onartu | | • Falta de educación en tolerancia y respeto | • Educar en el conocimiento de otras culturas<br>• Tolerantziatik erekonozimendura egin eboluzioa, errekonozimenduak "bestea" ere duelako kontuan, bi pertsonen arteko interakzioa. |
| BERDINTASUNA | • Berdintasunaren kontzepzio ia bakarra<br>• Aukera berdintasuna | • Visibilidad desde las instituciones, en cuanto a género<br>• Berdintasuna justiziaren oinarria da | • Falta cultura de igualdad<br>• Berdintasun mota bat, batzuetan injustua<br>• Aukera berdintasuna abiapuntu eta helburu gisara (horretan ezberdintasunak jasotzen dira) | • Aukera berdintasunean hezi beharra, aniztasunaren trataera berdinetik berdinera. Ez baikara "berdinak", ez baitugu "berdinak" izan behar: generoari dagokionez, eta bestela esparruetan ere aukera berdintasuna. |
| KONFIANTZA | • Edozein proiektu kolektibo eraikitzeko oinarria | • Konfiantzan oinarritutako esperientzia bakanak ditugu | • Mundu irekian, indibidualismoak ahultzen du ondokoa | • Konfiantza indartzeko guneak sortzea eta sustatzea.<br>• Konfiantzan oinarrituriko ereduak eta proiektuak balioan jarri, zabaldu. |
| ETIKA | | | • Falta de ética en política<br>• La falta de ética conlleva desprestigio | • Educar en la ética<br>• Autoevaluarse y auto reconocerse en cuanto a la ética desarrollada |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ESKUBIDEAK/ BETEBEHARRAK | • Cultura de conocimiento de los derechos y obligaciones (implica visión de grupo de lo colectivo, de la comunidad) | | • Desconocimiento. El exceso de individualismo no deja penetrar la base y relación derechos-obligaciones | • INFORMAR Y FORMAR en los derechos y obligaciones y lo que ello conlleva |
| POLITIKA | • Kolektiboaren kudeaketa. | | | |
| DEMOKRAZIA | | | | • Demokrazia eza deuseztatzea<br>• Demokrazia indartu, gaurkotu. |
| KOMUNITATEA (Proposatzen da kontzeptu hau gehitzea, kultura politikoaz hausnartzeko elementu oso garrantzitsu gisan.) | • Dimentsio kolektiboa<br>• Aitortza da, norberaren eta bestearen aitortza da. | | | • Komunitatea landu eta ikustarazi beharra<br>• Komunitatearen garrantziaren beharra (bai herri gisan, bai ekonomian, bai heziketan…esparru guztietan )<br>• Partekatzen ditugun minbreak antzeman eta horietan oinarritu (euskaldun gisan, abertzale gisan…)<br>• Mundura begiratzeko modu partekatua landu |

Lan talde honek baloratzen eta lehenesten ditu honako erronkak eta hausnarketak kultura politikoa hobetzeko eta gaurkotzeko bidean:

- **Konfiantza landu beharra** (Elkar entzun/elkar ulertu), enpatia, pertsonen eta kolektiboen arteko konfiantza harremana, eta horretan oinarrituriko ideiak, helburuak eta proiektuak landu.
- **Komunitatearen lanketa**: partekatu ditugun minbreak identifikatu (euskaldunenak, abertzaleena) ikuspegi partekatua balioan jarri eta indartu. Erreparatu gehiago, erakutsi gehiago eta landu gehiago partekatzen ditugun ideia eta proiektu horiek, horretan inbertitu. Oinarri sozialetatik sujeto politikoetara, eremu guztietan paradigma hori landu behar da. Mundua ikusteko modu partekatua.
- **Gatazka** (aurrera egiteko mekanismoa) **balioan jarri** intentsitatearen oreka aurreikusiz . Gatazkaren beharrean eta onuran hezi, betiere intentsitatearen oreka aurreikusiz gatazka bakoitzari.
- **Akordioaren kultura prestigiatu**, sustatu, ereduak erakutsi, komunikatu…

## 2 LAN TALDEA: KULTURA POLITIKO BERRIAREKIN LOTZEN DIREN KONTZEPTUAK

| KONTZEPTUAK | Dituen ezaugarri / elementu nagusiak | Egun kontzeptuak dituen indarguneak | Kontzeptuak dituen hutsuneak | Erronka |
|---|---|---|---|---|
| PARTE HARTZEA | • Construcción colectiva desde lo individual<br>• Urria da<br>• Asoziatiboa, gizartearen hobekuntza, helburuetan oinarritua, asoziazioak<br>• Pertenencia<br>• Zerbait jarri | • Actitud positiva<br>• Formación o intención<br>• Daudenak konprometituak<br>• Lobby herritarra antolatua<br>• Información al alcance de todos<br>• Helburua kontzertatua | • Falta de espacios motivadores<br>• Kopuru txikia<br>• Urria<br>• Deskreditua<br>• Escasa cultura<br>• Konpromiso maila urria | • Crear espacios motivadores: eficientes, que generen cultura participativa…<br>• Partaidetza gehitu, handitu<br>• Sozializazioa behar da<br>• Kanalen premia dago<br>• Convocar voluntades |
| KONPROMISOA | • Asunción de derechos y obligaciones<br>• Ematea<br>• Parte sentitzea/izatea<br>• Helburuari atxikitzea<br>• Emozioa<br>• Eman bakoitzak ahal/nahi duena<br>• Responsabilidad | • Kontzeptu kolektiboa (ni-tik gu-ra)<br>• Beti bezala gutxi batzuen eskuetan<br>• Pertsonen heldutasuna<br>• Movimientos asociativos | • Falta de convicción<br>• Indibidualismoa<br>• Dedikazioa<br>• Beti bezala gutxi batzuen eskuetan<br>• Denboraren antolaketa<br>• No suficiente apoyo<br>• Ardura falta<br>• Ez ditugu guneak ezagutzen | • Generar la convicción de que si nos ponemos a la tarea podemos cambiar las cosas<br>• Zoru amankomuna irudikatu<br>• Motibazioa<br>• Erabakitzea<br>• Lidergoa<br>• Praktikaz erakutsi<br>• Favorecer movimientos |
| ELKARTASUNA | • Gizarteko baloreen aldaketa<br>• Besteekin bat egitea<br>• Besteari eman ezer jaso gabe<br>• Compartir<br>• Besteekin batera egitea | • Aukera zabala dago: irabazi asmorik gabeko erakundeek parte hartzeko<br>• Balio modernoa<br>• Kalitatezko bizitza<br>• Sociedad avanzada | • Kudeaketa profesionalagoa<br>• Besteen gabeziak ezagutu behar dira<br>• Laguntza (posible egiteko)<br>• Individualismo<br>• Materialismo | • Egiten duten lana goraipatu edota errekonozitu<br>• Sentsibilizazioa hezkuntzatik<br>• Gizarte zibilaren partaidetza<br>• Convocar voluntades<br>• Leyes que le den soporte (una política fiscal solidaria por ejemplo) |
| MILITANTZIA | • Kolektiboa<br>• Ideologia, iritzi propioa, formazioa<br>• Obediencia<br>• Pragmatismo ariketa<br>• Eraginkorra izateko modua<br>• Peligro de extinción | • Kanalizatua<br>• Asoziazioa, elkartzea<br>• Zerbaitegan sinistu | • Norbanakoa interesatua<br>• Existitzen da militante politikoa?<br>• Poca participación<br>• Cansancio<br>• Zaharra dirudi hitza<br>• Ez dago modan<br>• Sektarioa dirudi<br>• Alderdiko gauza dirudi<br>• Militanteak nekatuta | • Esnatu sinistu eta borrokatu<br>• Reinbentatu |
| ENTREGA | • Eskuzabaltasuna<br>• Dedicación | • Ibilbide handia<br>• Motibatuz gero, jendea prest | • Ustelkeria | • Lekukotza |
| SAKRIFIZIOA | • Priorizar<br>• Mezakoa dirudi<br>• Atzoko hitza<br>• Gazteak gutxi egiten dutela esaten dugu, baina gure adineko jendea ere bai, beti gara berdinak | | | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | • Graduación de aportación, intensidad: elkartasuna→ militantzia→ entrega→ sakrifizioa | | | |
| ANIZTASUNA | • Respeto a lo diferente<br>• Mestizaje de ideas y culturas | • Asunción del discurso colectivo de los cambios de todo tipo | • Cierto aburguesamiento social, reacción | • Superar los miedos<br>• Diversidad cultural y legal |
| BIZIKIDETZA | • Gizarte bakartia<br>• Errespetua<br>• Tolerantzia<br>• Elkarrekin zerbait amankomunean<br>• Denon interesak bat<br>• Geolokalizatua<br>• Errespetua<br>• Pertsonen inguruan sentitu eta bizi<br>• Respeto | • Berdintasuna justizia zentsua<br>• Gizarte konprentsiboa, elkartua<br>• Aurre jarrera hobeak (dagoenarekin konparatuta)<br>• Momentua da | • Bizkarra emanda bizi gara<br>• Bakoitzak bereari eutsi, politikoak bereziki<br>• Exkluientea<br>• Dialektika sektarioa<br>• Lotura falta (ez nahi ikusi, begiak itxi)<br>• Kritikaren falta, egin eta asumitu | • Ingurukoekin errealitatea hobeto ezagutu<br>• Esperientziak bizi + komunikatu<br>• Erreferentziak sortu<br>• Antolaketa espazioa kanalizazio premia<br>• Akordioaren kultura<br>• Ingurua sentsibilizatu<br>• Tentsioa jaitsi behar da |
| POLITIKA | • Organización de la vida en comunidad<br>• Ciencia aplicada para organizar lo común<br>• Arte de lo posible | | • Minusvaloración del valor de lo colectivo – individualismo<br>• Se entiende desacuerdo como perdida | • Crear cultura política<br>• Dignificar la política<br>• Gardentasuna<br>• Respeto al diferente<br>• Kultura berria ezarri: gizartea garaile beti |
| DEMOKRAZIA | • Un sistema político<br>• Participación | • Idealización concepto poco definido | • Praxis de baja calidad | • Mejorarla<br>• Respeto al diferente<br>• Akordioa<br>• Ejercicio de calidad |

Lan talde honek lehenetsi ditu honako ideiak kultura politiko berriaren lanketaren bidean, eta ideia horien lanketa gailendu da talde hausnarketan:

- **Generazioen arteko harremana**, komunikazioa eta elkar ulertzea landu: bakoitzak besteari leporatzen dizkiogu hutsuneak (gazteek ez dutela parte hartzen, paso egiten dutela…edota zaharrek txapa asko botatzen dituztela, beti doktrinak ematen…). Elkar ulertze bat egon behar du, eta elkar osatze agian. Gerturatu behar da, ikuspegiak ulertu, bakoitzak nondik ari den kokatu, eta interakzioa zertan gauza daitekeen adostu. Kultura politikoak eta politikak behar du interakzioa.
- Partaidetzarako **Herritarron ahalduntzea** landu: Politikak ateak zabaldu behar ditu herritarren aurrean, eta herritarrek pentsatzen dutena proposatzen dutena aintzat hartu. Herritarrak urrundu badira izan da politikak ez dituelako herritarrak erdiguneak kokatu. Herritarrak ahaldunduta sentitu behar dute gerturatzeko. Ahalduntzea kolektiboa behar du izan, politika kolektiboarekin lotu behar baitu. Herritarren delegazionismoaren aurrean, ahalduntzea landu, ahalduntze kolektiboa.
- **Partaidetzarako "zoru-ideia-eredu" amankomuna sortu eta landu**: Partaidetzaz hitz egiten da baina ez dakigu non dauden beharra, zeintzuk diren gaiak, momentuko lehentasunak….Demagun orain ezinbestekoa dela elikagaien bankua, ba herritarrek izan dezatela behar komunitario hori eskura, eta horretan parte izateko aukera izan dezatela… Herritarrei etengabe erakutsi behar zaie eta aukera eman behar zaie egin daitekeen horretaz. Non dauden partaidetzarako beharrak adierazteko komunikazio kanal eraginkorrak landu.

## 3 LAN TALDEA: IDENTITATEEN OSAGAIAK

| KONTZEPTUAK | Dituen ezaugarri /elementu nagusiak | Egun kontzeptuak dituen indarguneak | Kontzeptuak dituen hutsuneak | Erronka |
|---|---|---|---|---|
| EZKERRA | • Participación en lo social y económico | • Participación desde la base | • Discurso complejo y muy amplio | • Discurso unificado y transformador |
| ESKUINA | | | | |
| ZENTROA | | | | |
| AUZOA | • 1ª linea de participación en comunidad<br>• Gertutasuna, bizilagunak ezagutzea | • 1ª línea de participación social y por lo tanto cercanía<br>• Gertutasuna, arazo komunak izatea | • Desapego y ciudades dormitorio<br>• Politikaren desprestigioa, sentimendu kolektiboa falta da<br>• Ikuspegi mugatuaren arriskua | • Participación social<br>• Poca influencia a nivel global<br>• Eraginkorra eta positiboa dela erakustea<br>• Auzo/herri bizitza balioan jarri |
| KOMUNITATEA | | • Abstrakzioa/irekia | • | • Aniztasuna<br>• Ezberdinak onartu |
| NAZIOA | • Ubicación geográfica<br>• Pertenentzia sentimendua globalizazioaren aurrean | • Pasado común, vivencias compartidas<br>• Babesa bezala ematen du, herri/munduaren artean | • mundutasunaren indarra<br>• Difuminazioa<br>• Globalizazioaren aurrean zailtasuna | • Nazio kontzeptua sendotu eta gauzagarria egin |
| ESTATUA | • Decisión propia de temas relevantes | • Decisiones que nos acontecen de forma cercana | • Pérdida de poder frente a otras entidades | • Recuperación de poder para la ciudadanía |
| HIZKUNTZA | • Sentimiento<br>• Elkar ulertze berezia da, mundua ikusteko-ulertzeko modua | • En el caso del euskara, haber sobrevivido<br>• Hiztunen arteko lotura<br>• Lan konkretua egiteko aukerak<br>• Komunitatea egiten du<br>• Singularitatea | • Diferencia entre conocimiento y uso<br>• Hiztunen arteko lotura estuegia bada, besteekiko itxiera<br>• Diglosia eta ingelesaren prestigioa/ zabaltzea<br>• Adostasun falta, ezezagunak kontra<br>• Erabilera politikoa<br>• Ez dago instrumentaltasun osoa | • Romper la barrera del % mínimo de hablantes euskaldunes<br>• Euskararen behar soziala areagotzea<br>• Enfrentamendua saihestea<br>• Euskaldunok euskararen garrantziaz jabetzea, erabiltzea<br>• Euskalduntzea<br>• Unibertsalizatu gure hizkuntza |
| PERTSONA | | | | • Konpasioa |
| ZALETASUNA | • konpromiso konponentea | • Inplikazioa | • Zatitzeko ahalmena<br>• Erregulartasun falta | • Komunitate zabalagoa eredu |
| POLITIKA | • Incertidumbre técnica | • Es indispensable<br>• Establisment | • Mala imagen<br>• Alderdiekin lotzen da soilik | • Resultados<br>• Politika eredua aldatu |
| DEMOKRAZIA | • Efensa de los intereses de los que no se pueden defender | • Es el menos malo | • A veces… no va. Según como gobiernan<br>• Hutsa | • Aprendizaje continuo de buenas practicas |

Lan taldea ez da erronkak lehenestera iritsi; honen ordez, lan taldeko partaideak panelean agertzen ziren hitz, kontzeptu edo elementuek identitate kolektiboak, eta beraz, identitate politikoak eratzeko zein ahalera duten eztabaidatu dute. Eztabaidaren ondorio bezala, plenariora ondorengo lau ideiak eraman dira:

- **Hizkuntza** :Hizkuntza sentimendu sortzaile eta eratzaile nagusia dela irizten diote parte hartzaileek, pertsonek beren artean "elkar ulertzeko eta mundua ikusteko" osagai "berezia". Hizkuntzaren bitartez eratzen osatzen diren komunitateak ongi definitutako komunitateak dira, nahiz eta hizkuntz-komunitate ezberdinen arteko ukimena eta gertutasuna agerikoa den. Hau da, definituta egoteak ez du esan nahi itxiak direnik. Hala, hizkuntzaren auziaz hitz egitean, bereziki euskararen egoera eta egoera honekiko kezkatik hitz egin dute parte hartzaileek.
- **Nazioa** : Nazioa kontzeptua kokapen geografikoarekin lotu dute parte hartzaileek, eta adierazi dute egungo globalizazioaren joeren aurrean "pertenentzia sentimendua" sustatzen duela. Identitatearen osagai ditugu pertenentzia sozialak eta hauek hainbat kategoria, talde edo kolektiboekin identifikatzearen ondorio dira. Identifikazioa, hein handi batean, pertenentzia sentimendua da, eta atxikipen-sentimendua, beraz, identitate-eragilea dugu. Nazioa lotu dute "iragan eta bizipen konpartituen" ideiarekin.
- **Auzoa/ herria** : Nazio kontzeptua lantzerakoan agertu da ideien segida berean, "auzoa edo herria". Komunitatean parte hartzeko edo komunitate bizitza egiteko lehen lerroa dela ulertzen da. Gertutasuna eta ingurukoak nahiz inguruarekiko ezagutza zuzena dira osagai honi balioa ematen dioten beste ideiak.
- **Zaletasunak**: Gaur eguneko jendarteek agertzen duten zatikatzea aintzat hartuta, identitateak ere zatikatuta agertzen direla ulertzen da. Konpromezua bezalako kontzeptuek, eta areago talde-konpromezua bezalakoek aldaera inportanteak izan dituzte. Honek, baina, ez du esan nahi konpromezurik gabeko jendarte batean bizi garenik, eta hala, **konpromezuak eremu berrietan eratzen direla ulertzen da; hala nola, "gustua" edo "zaletasunei" lotutako eremuetan**. Zaletasunak inoiz baino gehiago daude bizitzaren erdigunean eta honek komunitate eredu berriak sortzea eragin du.

## 1.3. ERRONKEN AZTERKETA ETA SAILKAPENA

Azpi talde bakoitzak bere lanketa azaldu du laburrean: hautatu diren kontzeptuak eta erronka gisan lehentasunezkoak jotzen direnak. Lan taldean zehazturiko erronkak eta hausnarturiko ideia nagusiak papelo txurian kokatuko dira, horizontalean. Ñabardura egiten da honela:

- **Identitatea osatzen** duten elementu eta kontzeptuez hausnartzea gainerako kultura politikoaren kontzeptuekin zaila da eta agian ezegokia ere. Hori dela eta, bereizten dira erronken artean bi multzo: bata kultura politikoari begirako erronkak, bestea identitatea eraikitzeko lehentasunezko elementuak direnak.

Horrela, partaide bakoitzak hiruna gometza berdeen bidez hautatu ditu **lehentasunezko erronkak edo lanketarako gaiak** kokatu ditu. Jarraian azaltzen direnak dira talde honek lehenesteko proposatzen dituen erronkak (betiere bi kategoriatan bereizirik: kultura politikoari buruzkoak, eta identitateen eraikitzaileak):

| KULTURA POLITIKORAKO ERRONKAK | IDENTITATEA ERAIKITZEN DITUZTEN ELEMENTUAK |
|---|---|
| **Konfiantza landu beharra** (Elkar entzun/elkar ulertu) enpatia pertsonen eta kolektiboen arteko konfiantza harremana (ikus aurreko puntuko ideiak)<br>●●●●●●●●●● | **HIZKUNTZA.** (ikus aurreko puntuko ideiak)<br>●●●● |
| **Komunitatearen lanketa**: partekatu ditugun mimbreak indentifikatu(abertzaleena) ikuspegi partekatua balioan jarri eta indartu. Oinarri sozialetatik sujeto politikoetara. Mundua ikusteko modu partekatua (ikus aurreko puntuko ideiak)<br>●●●●●●●● | **AUZOA/HERRIA** (ikus aurreko puntuko ideiak)<br>●●● |
| **Akordioaren kultura prestigiatu, sustatu** (ikus aurreko puntuko ideiak)<br>●●●●●●●● | **NAZIOA** (ikus aurreko puntuko ideiak)<br>● |
| **Gatazka (aurrera egiteko mekanismoa) balioan jarri intentsitatearen oreka aurreikusiz** (ikus aurreko puntuko ideiak)<br>●●●●● | ZALETASUNAK (ikus aurreko puntuko ideiak) |
| . Generazioen arteko harremana, komunikazioa eta elkar ulertzea landu (ikus aurreko puntuko ideiak) | |
| Partaidetzarako Herritarron ahalduntzea landu (ikus aurreko puntuko ideiak)<br>●●● | |
| Partaidetzarako zoru-aukera amankomunak eskaini, erakutsi (ikus aurreko puntuko ideiak)<br>●●● | |

EMAITZAK BEHATU DIRA, eta denbora faltagatik ez dira baloratu. **Azpimarratzen dira honako ideiak:**

- Kultura politiko berriak **kolektiboaren eta komunitatearen lanketaren beharra** du, berau identifikatuz eta balioan jarriz; aurrekoarekin loturik, **konfiantzazko jarrerak** ezinbestekoak dira kolektiboan, komunitatean. Horrela, bai **maila pertsonaletan eta baita kolektiboan ere, konfiantzazko harremanak sortu** behar dira. Lanketa bi horiek oso garrantzitsuak dira abertzaleentzat eta indepentziazaleentzat.

- **Gatazka balioan jarri mekanismo ezinbesteko** gisan kolektiboaren aurrera pausuetarako. Gatazkak antzeman eta horien intentsitatea neurtu eta baloratu. Gatazken kudeaketarako mekanismoak behar dira, eta horren heziketa eskema ere ezinbestekoa zaigu. Alboratu behar dira gatazka enrrokatuak, lehiako gatazkak…eta ikuspegi komunitario-kolektiboaren lanketan kokatu. Horrekin lotuta, **akordioaren kultura landu eta balioan jarri** behar da, ereduak eta adibideak erakutsiz aldiro. Betiere **ulertu behar da akordioa, denek osagaiak edo zerbait jarriko duten prozesu gisan**, eta ez "nirera atxikitzeko" prozesu gisan. Bidean, bakoitzak zerbait utzi eta zerbait jarriko da, eta "**artekotasunaren"** emaitza izango da akordioa.

  **Legearen izaera dinamikoagoa, malguagoaren beharra:** aldaketak eta eraldaketak oztopatzen ditu maiz legeak, mugimendurik gabe utziz gizarte mailan mugimendua duena. Legeak errealitate sozial eta politiko berriei malgutasuna eskaini behar die.

- **Identitate kolektiboen eta politikoen lanketan**, baloratzen da indarguneak egun daudela hizkuntzan eta **hizkuntzaren lanketan**. Horrez gain, **auzoa/herr**ia, **kolektiboaren** eta **elkarbizitzaren** unitate gertukoena gisan ulertuta, oso **garrantzitsutzat jotzen da**. Era berean kontuan izan behar da egungo ahuldadea dela "auzo eta herri dormitorioak" sortzeko joera dugula.

Amaitzeko aipatzen da **honek guztiak pertsonen eta pertsonen arteko harremanen lanketan inbertitzea eskatzen duela.**

Azkenik, Aztikeretik aipatzen da kontuan hartuko direla edukiak ikerketa ikuspegitik, eta horiek herritarrek nola kokatzen eta baloratzen dituzten neurtzen ahaleginduko dela hurrengo fasean.

### 1.4. <u>BALORAZIOA:</u>

Jardunaldia bera baloratu da, modu indibidualean, eta galdetegia beteaz. Ikus eranskina II.

Ordutegia betetze aldera Jardunaldia amaitu aurretik honakoak aipatu dira:

- Ikerketaren emaitzak azaltzen dituen txostena bidaliko da e-postaz.
- Gaurko Jardunaldiaren memoria ere bidaliko da e-postaz ere.
- Udazkenean berriro ere deituak izango dira bigarren hausnarketa jardunaldi batera, eta bertan, herritarren diskurtsoak eta iritziak erantsiko zaizkio gogoetari.

**Maribel Vaquero Zuzendariariaren agurrarekin Jardunaldia amaitutzat eman da arratsaldeko 18'40etan.**

**Donostian, 2017ko martxoaren 13an.**

# I.ERANSKINA: GIPUZKOAKO KULTURA POLITIKOAREN INGURUKO IKERKETA PROZESUAREN LEHEN FASEA. 2016

## IKERKETA KUANTITATIBOA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

[a]aztiker
soziologia ikergunea

# METODOAZ, BI OHAR

## METODOAZ, BI OHAR

- 88 PANEL-KIDEAK, TEORIAN EZ DUTE INOR ORDEZKATZEN.
  - Bost eremuetan (Garapen ekonomikoa, Komunikazioa, Kultura, Hezkuntza eta Jakintza) Aztikerrek eta Batzarretako taldeek izenak proposatu zituzten.
  - PP ezik, talde guztiek panelisten hautaketa egin zuten puntuazio sistema baten bidez.
  - Hautatuekin (115) Aztiker harremanetan jarri, gonbidapena egin eta inkesta erantzun zuten 88k.
- 47 (46) BATZARKIDEAK
- Inkesta on line erantzun zen, euskaraz edo gaztelaniaz. Gutxi gora-behera, galderen erdia, berdinak ziren batzarkide eta panelistentzat. Beste erdiari dagokioenean, adituei herritarrekin erabilitako formulazio bera egin zitzaien, batzarkideei herritarrengatik galdetu zitzaien. Galdera gutxi batzuk, soilik batzarkideei egin zitzaien, beste batzuk, soilik adituei.

# BALIOAK: 2 IKUSPUNTU

# BALIOAK: BI IKUSPUNTU







***Iturria:*** *58. Euskal Soziometroa: Kultura demokratikoa 2015eko ekaina*




***Iturria:*** *Aztiker, "gazteak eta politika Gipuzkoan 2009"*

# ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK

# ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK









# SOZIALIZAZIO POLITIKOA ETA INTERESA POLITIKAN

# SOZIALIZAZIO POLITIKOA ETA INTERESA POLITIKAN

## POLITIKA NERABEZAROAN (OROIMENA)







***Iturria:*** *58. Euskal Soziometroa: Kultura demokratikoa 2015eko ekaina*

## POLITIKAZ HITZ EGITEKO OHITURA EGUN







***Iturria:*** *58. Euskal Soziometroa: Kultura demokratikoa 2015eko ekaina*

## ALBISTEAK IKUSTEKO OHITURA (Egunero / 6-7 egunetan)



## POLITIKA GAIEN ULERMENA







***Iturria:*** *58. Euskal Soziometroa: Kultura demokratikoa 2015eko ekaina*

## POLITIKAK ERAGINDAKO SENTIMENDUAK







***Iturria:*** *58. Euskal Soziometroa: Kultura demokratikoa 2015eko ekaina*

# HIRITAR IDEALA(K) ETA DEMOKRAZIA

# HIRITAR IDEALA(K) ETA DEMOKRAZIA

## HIRITAR ONAREKIN LOTUTAKO EZAUGARRIEN GARRANTZIA







## PARTE HARTZE SOZIAL ETA POLITIKOEN GAINEKO ADOSTASUN MAILA



## LEGITIMAZIOA VS IDEALIZAZIOA

### ERAKUNDEEK PARTE HARTZEA BEHAR ADINA BULTZATZEN AL DUTEN




### INPLIKAZIO SOZIAL ETA POLITIKOARI BURUZKO IRITZIAK



## HIRITARREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK






## DEMOKRAZIA TERMINOA ZEREKIN LOTZEN DUTEN



# NAZIO AUZIA ETA DEMOKRAZIA

# NAZIO AUZIA ETA DEMOKRAZIA



# NAZIO AUZIA ETA DEMOKRAZIA






# PARTE HARTE SOZIAL ETA POLITIKOA, AUKERAK ETA OZTOPOAK

## ZURE IRITZIZ, OROKORREAN, ERAKUNDEEK BEHAR ADINA EGITEN DUTE HERRITARREN PARTE-HARTZEA ERRAZTEKO?




## POLITIKAN PARTE HARTZEKO AUKERA ZABALTZEA




ADOSTASUNA: Parte hartzea gehiago sustatu behar da, herritarrengandik hasita

## ERAKUNDEEK SUSTATU DITUZTEN PARTE-HARTZE PROZESUETAN POLITIKARIEN PRESENTZIAK JENDEAREN PARTE HARTZEA LAGUNDU EDO OZTOPATU EGITEN DUELA USTE DUZU?






DESADOSTASUNA¿?: Parte hartzea nola egituratu

## GIPUZKOAKO POLITIKAREN IRUDIA



# INTERNET ETA POLITIKA

## INTERNETEN BALIAGARRITASUNA



# INTERNET ETA POLITIKA

## INTERNET BIDEZKO PARTE HARTZE POLITIKOA




## INTERNET HARREMANAK ETA KONFIANTZA



# GIPUZKOAKO KULTURA POLITIKOAREN INGURUKO IKERKETA PROZESUAREN LEHEN FASEA. 2016

## IKERKETA KUANTITATIBOA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

[a]aztiker
soziologia ikergunea

# II.ERANSKINA. BALORAZIOA

# KULTURA POLITIKOARI BURUZKO IKERKETA ILDOA. **BALORAZIOA**

**Adituen Panela**

# LINEA DE INVESTIGACIÒN CULTURA POLITÍCA. **VALORACIÓN**

**Panel de ciudadanía experta**

**KULTURA POLITIKOA, IKERKETA ILDOA / CULTURA POLITICA, LÍNEA DE INVESTIGACIÓN:**

1. Baloratu 0tik 10era ikerketa ildoaren garrantzia zuretzat / VALORA de 0 a 10 la importancia de la línea de investigación para ti:

| 0 "oso garrantzia gutxi" | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 "garrantzia handia" |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | 8,3 | | |

2. Orain arteko inkestan soberan sumaturiko edukiak zehaztu / Concreta los contenidos que valoras sobrantes en la encuesta realizada:

| | |
|---|---|
| *Jasotako informazioa ez dago inoiz soberan* | 1 |
| *Lagina osatu / Generoa orekatu / Ideologia sesgoa* | 1 |
| *Tema relijioso* | 1 |
| *Honelakoetan ez dago soberarik, informazio guztiak behar beharrezkoak dira, loturak egiteko* | 1 |
| *Soberan ezer ez* | 1 |

3. Orain arteko inkestan faltan sumaturiko edukiak zehaztu / Concreta los contenidos que faltaban en la encuesta realizada:

| | |
|---|---|
| *Dinamikaren testuingurua* | 1 |
| *Transmisioari buruzko galderak* | 1 |
| *Kultura Politikoa terminoa eta bere esanahia bir-pentsatu; gaurkotu* | 1 |
| *Gazteen iritzia gehiago jaso / Generoarekin loturako galderak (indarkeria areagotzen ari delako, horri nola aurre egin hobeto lantzeko) / Kanpotik etorritakoen iritziak (Gipuzkoako gizartearen parte geroz eta handiagoa direlako eta izango direlako)* | 1 |
| *Komunitatearen kontzeptuan sakontzea / Gizarte kohesionatu partekaturako beharrezko diren oinarrizko balioetan sakontzea* | 1 |
| *Politikaren ikuspegi zabalagoa. Komunitatea* | 1 |

## I. JARDUNALDIA / I. JORNADA:

| | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4. Emaitzen aurkezpena | | | | | | | | **7,3** | | | |
| 5. Lan metodologia / Dinamikak | | | | | | | | **7,4** | | | |
| 6. Dinamizatzaileak/erraztatzaileak | | | | | | | | **7,9** | | | |
| 7. Sortu diren edukiak | | | | | | | | **7,9** | | | |

8. Eginiko emaitzen aurkezpena hobetzeko proposamenak / Propuestas para mejorar la presentación de resultados:

| | |
|---|---|
| *Presentación a mejorar. Recogida ideas a mejorar* | 1 |
| *Datuak aurretik banatu partaideen artean* | 1 |
| *Aurretik materiala aztertzeko aukera* | 1 |
| *Gure datuek despistatu gaituzte dinamikan* | 1 |
| *Gaien aurkezpenean denbora gehiago* | 1 |
| *Dokumentuak aurretik helarazi. Denbora falta* | 1 |
| *Analitikoki egin. Enfasia ideia esanguratsuetan. Aldez aurretik pasa lana eta irakurrita ekarri* | 1 |
| *Ahozko azalpena, grafikoa eta txostenean kokapena lotzea, jarraipena hobeto egiteko* | 1 |
| *Orden ppt=orden fotocopias. Si se habla en un idioma el ppt en el otro* | 1 |
| *Ondorio eta interpretazioetan gehiago sakontzea* | 1 |
| *Txostena eta aurkezpena jarraitzea zail xamarra zen* | 1 |

9. Dinamikak hobetzeko proposamenak / Propuestas para mejorar las dinámicas de trabajo:

| | |
|---|---|
| *Datuak aurretik banatu partaideen artean* | 1 |
| *Praktikotasuna galtzeko arriskua kontuan hartuta, denbora gehiago hartzea* | 1 |
| *Zer lortu behar genuen ez dugu garbiegi izan* | 1 |
| *Denbora aztertzeko* | 1 |
| *Hay cuestiones que en 1 hora es complejo llegar a acuerdos. O se da más tiempo o resultados menos ambiciosos* | 1 |
| *Orma-irudian / taulan idazteko errotulagailuak erabiltzea, ikusgarritasuna lortzeko* | 1 |
| *Denborak neurtzea* | 1 |

## AURRERA BEGIRA / DE CARA AL FUTURO:

10. Herritarren inkestan txertatzeko eduki proposamenak / Propuesta de contenidos para introducir en la encuesta a la ciudadanía:

| | |
|---|---|
| *Empoderamentua. Guztion garaipena posible denaren kultura zabaldu* | 1 |
| *Politika eta alderdi politikoak bereiztu* | 1 |
| *Teknologia berrien eragina identitatean* | 1 |
| *Esfuerzo de la participación ¿todo el mundo puede igual?* | 1 |
| *Gazteen iritzia gehiago jaso / Generoarekin loturako galderak (indarkeria areagotzen ari delako, horri nola aurre egin hobeto lantzeko) / Kanpotik etorritakoen iritziak (Gipuzkoako gizartearen parte geroz eta handiagoa direlako eta izango direlako)* | 1 |
| *Bere balio sistema orokor eta oinarrizkoari buruzko galdera sartzea. Oinarrizko mundu ikuskera ezagutzeko* | 1 |

11. BESTERIK / OTR@S

| | |
|---|---|
| *Helburuak zehaztuago* | 1 |
| *Jarraitzeko bide luze eta zabala dago. Animo!* | 1 |